# *Euskal komikigintza eta euskal literatur sistema:*
*euskal komikiaren historia literario baterantz*

Iratxe Retolaza

# Sarrera

- Komikia, irudien eta hizkuntzaren bitartez sorturiko narrazioa da
- Bi koderen bitartez sorturiko genero honetara hurbiltzeko erabiliko den ikuspuntuak irakurketa baldintzatuko du (korpusa, irizpideak, eta abar).
- Euskal komikigintzaren ekarpenak aztertzerakoan irudia lehenetsi izan da (euskal grafismoaren historiarekin harremanetan aztertu)
- Irudiaren ikuspuntutik eginiko hurbilketak izan direnez, Euskal Herrian sorturiko komikia aztertu izan da, erabilitako hizkuntzari begiratu gabe

# Sarrera

- Euskal komikigintzaz egin diren azterketa monografikoek edo garai konkretu bat aztertu dute:
  - Díaz de Gereñuren *30x30 gure komikiaren tamaina/dimensiones de nuestra historieta*, *2006*
- Edo argitalpen konkretua aztertu dute: Díaz de Gereñuren *Habeko Mik 1982-1991: euskal komiki ahalegina*, 2006

# Helburuak

- Euskal komikiaren historia literarioari heltzeko lehen hurbilketa orokorra
- Literaturaren definizioa bera zabaldu
- Euskal literatur sisteman euskal literaturak izan duen lekuaz gogoetatzea, eta izan beharko lukeen lekuaz gogoetatzea

# Euskal Herriko prentsa eta irudia XIX. mende bukaeran

Komikia prentsan jaio zen generoa izan zen, horregatik, euskal komikiaren hastapenak euskal prentsan arakatu behar

**UMORE GRAFIKOA**

XIX. mende bukaeran indartu Euskal Herriko prentsaren egoera:

prentsak irudiari garrantzia handiago eman zion pixkanaka. Donostiako aldizkari satirikoak horren adibide dira:

Bitoriano Iraola grafista garrantzitsuena

*El Thun Thun* (1894); *El Aurresku* (1894); *San Sebastián Cómico* (1896).

Aldizkari hauetan karikaturek eta umore grafikoak leku garrantzitsua

# TXISTE GRAFIKOA

**Bitoriano Iraola, *Baserritarra*, 1907**




“-¿Trena atera alda?

-Bai, jauna

- ¿Azpaldi?

- Ordu erdi bat pasia

- ¡Karaches!¿Beraz zuk uste dezu, eznezakela arrapatu?”

# Euskal komikigintzaren aurrekariak

- Lehen euskal tira komikoa:

Bitoriano Iraolaren "On Kosmerentzat" izan zen, *Baserritarra* (1907) aldizkari donostiarrean agertu zena. Nekazaritzaz jarduten zuen aldizkaria zen, eta nekazarien ikuspuntutik heltzen gaiei, baita umoreari ere.

# Bitoriano Iraola, “On Kosmerentzat”, *Baserritarra*, 1907




-¿Beraz don kosmeren echera? Aparte samar bizi da eta gañera asko pisatzen du; ara orduko uste dut arinduko dala”

“¡Arrayenia! Au dek au pisuba! Eztago erremeriyorik arindu egiñ bihar”



# Bitoriano Iraola, “On Kosmerentzat”, *Baserritarra*, 1907




-”glu, glu, glu, glu..¡Au mama! ¡Biba don Kosme eta bere famili guziya!”

“-Orain bai errez eramango detala”





—¿Zer da an? ¿Ustuta pisu geya-go?

"- ¿Zer da au?¿Ustut a pisu geyago?"

"- ¡Ka! ¡Eziñ nezake eraman?"



—¡Ka! ¡Eziñ nezake eraman?

I.

# Lehen euskal bineta

"Teles eta Nikoren istorioak" (anonimoa)

- *Euzko Deia*n (1918), Bilbon argitaratzen zen EAJren aldizkaria.
- Teles eta Niko gazteen istorioak kontatzen dira
- Lehen komiki-seriea da (pertsonaia finkoez osaturikoa)
- Nahiz eta oraindik hitzezko narrazioak pisu nagusia izan, komikiari berezkoak zaizkion osagai narratiboak agertzen dira, **aurrekari garrantzitsuenetarikoa**: globoak, onomatopeiak, zeinu zinetikoak, metafora bisualak, eta abar.

# *Argia* aldizkaria (1921tik aurrera)

- *Argia* aldizkariak irudiari garrantzia handia eman zion hasieratik (gaur egunera arte)
- XX. mende hasieran diferentziaren estetikaren aldeko joera ematen da (arkitekturan, musikan, pinturan, literaturan, grafismoan): Jon Zabalo, Lagarde, Landi, Gezala eta beste zenbait Euskal Herriaren identita grafikoa landu zuten.
- Jon Zabalo "Txiki" grafista nagusia: Txiki batez ere marrazkilaria da, eta karga narratiboa marrazkian. Karteletan eta karikaturetan ez bezala, tira komikoetan helburu didaktikoari eutsi (edo gazteentzat, edo helburu erlijioso-identitarioa).

# *Argiaren urtekaria*, 1924, Jon Zabalo "Txiki"

"Aidian gabiltzanean, ixilik egoten bazerate… debalde. Itzik egin ezkero, danik eta kinkateko txikiyena… 50 peseta"

"…"

"Lurreratu diranean:

-Eup!... ¿orain itz egin al leike?

-Orain bai, nai dezun guziya.

- Arrane, arranea!... Aidean genbiltzala, Joxepa muturrez aurrera erori da!"



# Lehen komiki-orria

- *Euzko* (1932-1934) aldizkaria: Lauaxetak sustaturiko aldizkari honetan lehen komiki-orria argitaratu.
  - - "Peru Malluki", baserritar bat hirian
  - - *Gastetxu* gehigarria, gazteentzako orria

# Lehen komiki aldizkariak: haur eta gazteentzat

- *Umeentzako euskal-ingitxoa* (1923) Zeruko Argiako arduradunek Euskaltzaindiari komiki aldizkaria egiteko proiektua aurkeztu, ez zuen aurrera egin.
- *Txistu* (1927): ez da alerik atzeman
  - *Argia* astekariaren eskutik (Ambrosio Zatarain bultzatzaile nagusi)
  - Haur eta gazteei zuzendua
  - Helburua: alfabetizatzea eta euskalduntzea
- *Poxpoliñ* (1935-36):
  - Isaak Lopez Mendizabalek sortua
  - Itzulpenak egiteko baimena lortu
  - Euskal historiaren gertaera garrantzitsuak komikiaren bidez kontatu (Orreaga, Pernando Amezketarra, Loiolakoa, eta abar).
  - Helburu didaktikoa

# Komiki aldizkariak gerren ostean: haur eta gazteentzat

- *Pan-pin* (1960-1970):
- *Zeruko Argia* Iruñeako astekariak sortua
- Hasieran lapurteraz eta gipuzkeraz argitaratu, gero bizkaieraz
- Itzulpenak egiteko baimena lortu, batik bat haur aldizkari frantsesak itzuli, eta beranduago baita Bruguerararen istorioak ere

# Ondorioz

- Euskal komikiaren lehen sorkuntzek honako ezaugarri hauek zituzten:
  - Helburu didaktikoa (nazionalismoaren ideiak zabaldu –euskaldun fededun-, euskalduntzea).
  - Haur eta gazteentzat sortuak batik bat
  - Itzulpenak egitea lehenesten zen

# Euskal komiki modernoa
## (1970etik aurrera)
## Haur eta gazteentzako aldizkariak

- *Kili-kili* (1977-2003):
- Jose Antonio Retolazak sortua Bilbon
- Euskalduntzea eta kontzientzia zabaltzea zuen helburu
- Itzulpenak ziren sorkuntzaren oinarri
- Aldizkariak narratzaile nagusi bat zuen, Kili-kili, haurrei mintzatzen zitzaiena
- *Ipurbeltz* (1977-):
- *Erein* argitaletxeak sortua
- Euskaraz irakurtzeko ohitura zabaltzea du helburu
- Euskal sorkuntzarekiko interesa izan du
- Euskal marrazkilari eta idazleentzako gunea
- *Xirrixta* (1992-1998) eta *Kometa* (1996-1998):
- Ipar Euskal Herrian sortuak, EKE-ren eskutik (arazo ekonomikoengatik itxi)
- *Na-nai* (2001-) eta *Xabiroi* (2005-)

# Euskal komiki modernoa
## Helduak alfabetatzeko komikiak

- *Habeko Mik* (1982-1991):
  - HABEren eskutik argitaratuta
  - Helduen euskalduntzean lagungarri izateko
  - Leihaketa bitartez aukeratzen zituzten argitaratu behar ziren lanak
  - Idazle eta marrazkilari berrientzat gune garrantzitsua
  - Ez zuen arrakasta handirik izan irakurleen artean



# Euskal komiki modernoa
# Komikia prentsan

- Aldizkarietako tira komikoak: *Zeruko Argia* (*"Komikia"* gehigarria), *Anaitasuna*, *Pamiela* ("Pamiela komikia" gehigarria, 1983) eta abar.
- Egunkarietako tira komikoak:

- *Egin*, "Zakilixut" 1977tik aurrera: kritika soziala, parodia, eguneroko gertaeren ikuskera ironikoa, komikiaren teknika guzti-guztien erabilera.

# “Zakilixut”, *Egin* 1984.



# “Zakilixut”, *Egin* 1984.



# “Zakilixut”, *Euskaldunon Egunkaria* 1998-12-18



# Euskal komiki modernoa
# Magazineak

- *Euskadi Sioux* (1979):

- Batez ere gazteleraz idazten zuten, baina euskaraz sorturiko orri bat bazuten: “Zintza” (alfabetatzeko metodoei iseka egiten diena), Antton Olariagarena.

- *Napartheid* (1988-1998):
  - Nafarroan euskararen legea ezarri ondoren, hura salatu asmoz sorturikoa
  - Asisko Urmeneta eta Patxi Ugartek sortu, besteak beste
  - Ikuspegi kritikoa eta ironikoa

# Euskadi Sioux, "Zintza", 1979 (Antton Olariaga)



# Napartheid, 1991-1992



# Helduentzako komiki-liburuak



# Patxi Gallego, *Pololoak*



# Helduentzako komiki-liburuak



# Patxi Gallego, *Poxpoliñaren bahiketa*

